

Osteguna Rock Vital Fest 2023

Ekitaldiak

Andre Maria Zuriaren plaza
2023ko ekainaren 15a
19:00etan



Musika ekimen hori **Vital Fundazioak** antolatzen du urtero **Araña del Rockkultura elkartearen** eskutik Vitoria-Gasteizko rock astean eta Udalaren babesa du.

Informazioa

19.00h. Barriomanía

Vitoria-Gasteizen sortu zen pandemiaren ondoren. Anti (ahotsa eta gitarra), Brus (ahotsa), Asier Yarza (baxua) eta Asier Fernandez (bateria) sortutako taldea. Musikari bakoitzak bere ibilbidea egin du, besteekin zerikusirik ez duena, baina banda bat osatzeko eta kalitatezko eta nortasun handiko musika eskaintzeko gogoz elkartu dira.

Taldeko kide bakoitzak estilo propioa duen arren, bakoitzaren esperientzia zabalaren ekarpenari esker collage perfektua osatu dute.

20.10h. The Vanjas

50eko eta 60ko soul, Rhythm and blues eta garaje rock doinuetan inspiratutako Stockholmeko laukotea da, eta ospe handia lortu du Ike & Tina, Little Richard, Blondie edo The Sonics gogora ekarrita.

Urte hauetan Suedian, Norvegian, Finlandian, Danimarkan, Italian, Espainian, Erresuma Batuan edo Alemanian jotzen ibili dira eta kritika oso onak lortu dituzte. Orain atsedenaldi bat hartu dute, eta Vitoria-Gasteizen eskainiko dutena bezalako noizbehinkako emanaldiak besterik ez dituzte egiten.

21.30h. Eclipse

Suediako hard rock melodikoko **Eclipse** taldea. Talde honek sarrera agortuak izan ditu mundu osoan eman dituen kontzertuetan. Japonian, Australian eta Amerikan eman dituzte kontzertuak eta Europan bira luzeak egin dituzte publiko heterogeneoarentzat.

Viva La Victoria , Paradigm diskoko single nagusia, *streaming* bidez erreproduzitua izan da 15 milioi aldiz baino gehiagotan, eta Saturday Night (Hallelujah), pandemia osteko Wired diskokoa, festa ereserki bihurtu da covid osteko munduko belaunaldiarentzat.

Irudien galeria



Zabaldu



Zabaldu



Zabaldu

